

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak Berdintxiketan Berdintasunaren aldeko IV. Lasterketa Mistoia antolatu du gaur ostirala Oñatin.

2014/05/16

Berdintasuna sustatze aldera, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak Berdintxiketan Berdintasunaren aldeko IV. Lasterketa Mistoia antolatuko du, Oñatin. Gaur ostirala, maiatzaren 16an izango da, eta 16 urtez gorakoek parte hartu ahal izango dute, betiere, bikote mistoetan. Gainera, lasterkariak banaka ere parte hartzeko aukera izango dute, baina lehen hirurentzako sariak bikote mistoei soilik emango zaizkie.

Lasterketa gaur, maiatzaren 16a, ostirala, izango da, 19:30ean. Ibilbideak bost kilometro izango ditu, eta Enpresagintza Fakultatean hasi eta Foruen Enparantzan amaituko da. Lasterketaren helburua ez da bikotekide batekin korrika egitea, berdintasunaren aldeko herri-lasterketa batean parte hartzea baizik. Lasterketa horren bitartez, emakumeek kirola egitea sustatu nahi da, bai eta, lehiatik harago, kirola egiteko beste modu batzuk daudela erakutsi ere. Parte hartu nahi dutenek <http://sites.google.com/a/mondragon.edu/berdintxiketan/home> web-orrian eman dezakete izena, baina lasterketaren egunean bertan ere izena eman ahal izango da.

